

HZU/HZUA/HZRU ERREPASOKO ARIKETAK

1.- Bi lagun zaldiko-maldikora igo dira. Karlos erdigunetik 5 m-ra dagoen elefantearen gainean eseri da eta Andonik erdigunetik 3,5 m-ra dagoen suhiltzaile-autoa aukeratu du, biek behar izan dituzte 4 min 10 bira betetzeko.


- Abiadura lineal berberaz higitu dira? Eta angeluarra? Arrazoitu eta bakoitzarenak kalkulatu
- Karlosen higiduraren maiztasuna eta periodoa
- Zenbat angelu biratu du Andonik 10 s-an?.
- Zer distantzia lineala (arkua) egin du Karlosek 5s-an?.

2.- Kaletik 15m-ra dagoen leiho batetik, neska batek pilota erortzen utzi du. Kanean dagoen bere lagunak segundo bat beranduago, beste pilota bat jaurtitzen du gorantz 12m/s abiaduraz. Bilatu:

- Lagunaren pilotak lortzen duen altuera maximoa
- Zein altueran gurutzatuko dira?.
- Zer abiadura du pilota bakoitzak une horretan?.
- Non dago lagunaren pilota neskaren pilota lurrera iristen den unean?.

3.- Bi higikari A eta B bata bestetik 2km-ra daude eta aldi berean abiatu dira norabide eta noranzko berean, biak higidura uniformeki azeleratuaz. B autoa da motelena eta bere azelerazioa $0,32\text{cm/s}^2$ -koa da. Kontuan izanik A-k B harrapatzen duela B-ren abiapuntutik 3,025km-ko distantziara, kalkulatu:

- Elkar harrapatzeko beharko duten denbora.
- A-ren azelerazioa.
- Elkar topo egiten duten unean, bakoitzak duen abiadura.



4.-Puntu material batek 2m-ko erradioa duen ibilbide zirkular bat betetzen du, 60 bira minutuko abiaduraz. Kalkulatu:

- Periodoa
- Abiadura lineala.
- Azelerazio normal.
- Egindako arkua eta deskribatutako angelua abiatu eta 10 s-an.